

Errobotik euskal itsasbazterrera

Ibilbide guztiak ikusi liburu honetan ►►
Turismo bulegoetan eskuragarri



Maila
3

ERTAINA

COMPOSTELAKO BIDEA - Kostaldeko bidea
LE CHEMIN DE COMPOSTELLE - Voie de la côte



ZIBURUTIK
HENDAIARA

Donejakue Urruñako elizaren atarian

Ibilbide honen bigarren parteak Ziburuko herri barnetik Frantzia eta Espainiaren arteko mugaraino joatea ahalbidetuko dizue. Zuen ibilaldia segi dezakezue Espainian, Bidasoa zeharkatuz. Denbora har ezazue ondare arkitekturen aberastasunak preziatzeko (ospitaleak, kaperak, kalbarioak...). Hauek aitzinako ospitale-kulturaren benetazko lekukotasunak dira.

D Auverniako Dorrearen plazatik, Gurutze Xuriaren aitzinetik lehengo errege-bidea segitu (Donejakue ospitaleko gurutzea). RD810 errepidearen ondoan, eskuinera hartu eta 80 metrotan, eskuinera igotzen den Kafartenea karrika hartu. Hau segitu bururaino eta ezpondara igo lehengo SNCF zubira eramaten duen eskailera titikitik **1 0607195-4803438** Eskuinera hartu Agorreta bidean. RD913 errepidearen bidegurutzeraino segitu, bidea zeharkatu eta aitzinera segitu 150 metroz. Ondotik, ezkerredera hartu Zokoako bidea, RD810 errepidera heldu arte. Eskuinera hartu eta segitu xuxen bidegurutzeraino. Eskuinera hartu Bernard de Coral karrika, Urruñako herri barnerantz. Elizaren eta herriko etxearen aitzinetik pasa. Segitu xuxen RD810 errepidera iristeko. 100 metrotan, kasu emanez, Ospitalia etxearen (Donejakue bideko lehengo aterpetxea) aitzinetik pasatzen den Espainiako bide zaharra zeharkatu **2 0604685-4801638**. Segitu bide hau (harriduna lehen 500 metroetan) hamar bat minutuz. Lehen bidegurutzean bidea zeharkatu eta 150 m urrunago, eskuinera hartu Postaenea bidexka. Segitu beti xuxen, gora joanez RD810 errepidera azken aldikoz iritsi arte **3 0602325-4800734**. Zeharkatu eta ezkerredera hartu RD810 errepidea, hau ezkerretik segituz. 150 metrotarra, bihurtunean, larrean zehar murgiltzen den bidexka hartu. Hau, pentze baten bazterretik iragaten da eta lurrezko bidexka batetik ateratzen. Hau

0:25

1:40

2:25

3:05

3:30

3:40

ezkerretik hartu. 150 metrotan, eskuinera hartu igotzen den Migeltxoeborda bidexka. Hortik Hendaiako eta Hondarribiko ikuspegi zoragarriak agertuko zaizkizue. Bidexka honetan segitu -GR10 ibilbidean kokatzen dena ere- bide mundrunatuaren bidegurutzeraino **4 0600573-4801121**. Ezkerredera hartu eta 150 metrotan eskuinera Agorreta bidea. Xuxen segitu belarreztatutubetaraino eta aitzinera segi Biltegien karrikan, itzulguneraino. Hor, eskuinera hartu Hapetenea karrika eta ondotik xuxen Irandatz karrika. Ondoko itzulgunera heldu aitzin karrika zeharkatu eta parea den Santiago karrika segitu **5 0599230-4800806**, Priorenía Donejakueko ospitalaren aurrean. Segitu karrika hau hamar bat minutuz. Bigarren biribilgunean, hartu eskuinera bigarren ateratzea, Pausuko karrika, 200 metroz bururaino segitzen duguna (garraio zubi azpitik pasatu). Ezkerreko atekamotza hartu 150 metrotan kokatua den Donejakueko lehengo zubiraino. Honek, Bidasoa zeharkatzen du eta ibilbide honen bukaera markatzen du frantses lurraldean **6 0598476-4800431**.

Maila
3


ERTAINA

COMPOSTELAKO BIDEA - Kostaldeko bidea LE CHEMIN DE COMPOSTELLE - Voie de la côte




D (abiakua)
Ziburu, Auverniako
Dorrearen plaza

GPS : 0607918-4804463

 **3:40 (joatea)**

Balizamendua

D-tik **6**-era 



 **13,3 km**

 **+286 m**
-294 m

Ez hutsegín

- Ikuspegiak
- Compostelako ondare historikoa
- Zeharkatutako herrien ondare arkitekurala
- XIV. mendeko Urtubiko gaztelua



- **Ibilaldi hau ez da itzuli bat. Ibilgailu bat aurreikusi edo ibilbidea berriz egin alderantziz.**
- Kasu eman ibilgailuek erabiltzen dituzten bideetan eta batez ere RD810 errepidean

DONEJAKUEKO OSPITALEAK

Ziburutik Hendaiara, Donejakue bideko ospitaleak aintz eraiki ziren lehengo errege-bidearen bazterean (Gurutze Gorria Ziburun, Agorreta Urrugne, Priorenia Hendaian). Bidasoa, Priorenian parean zeharkatua zen. XV. mendea arte, urtero, 500.000 beilarik Santiago de Compostelarako bidea hartzen zuten.

Compostelako Bidea Ziburuko bide nagusitik iragaten zen, lapurtar etxe zaharen ondoan, lehen deituak ziren «Bordagaineko mendixkaren hegoaldeko» auzoetan zehar, gaur

egungo Gurutze Gorria, Gurutze Xuria eta Auverniako Dorrearen plaza.

Errege-bide hau, ondotik bide inperiala izan zena, desklatua izan zen XIX. mende erdituan, gaur egungo RD810 errepidearen eraikuntzarekin.

Ziburuk Donejakue ospitalea zuen eta gaur egun gurutzearen inguruko haresiaren (1616koa) euskarria baizik ez da gelditzen. Ondotik, Gurutze Xuria bilakatu zen eta Monumentu Historikoetan sailkatua.

Xehetasun gehiago:

Ziburuko Turismo Bulegoa

27, quai Maurice Ravel - 64500 Ciboure - Tel : 05 59 47 64 56

officedetourisme.ciboure@wanadoo.fr – www.ciboure.fr



TERRE & CÔTE BASQUES
PAYS DE SAINT-JEAN-DE-LUZ - HENDAYE
www.terreetcotebasques.com

www.rando64.fr

Oinez, mendiko bizikletaz edo zaldiz, Biarhoa eta Ipar Euskal Herria ezagutu !

Mailak

Fitxetan ageri den **desnibela**, igoera guztien emaitza da. Ibilaldien iraupena pausa momentuak konduan hartu gabe kalkulatu da.

Oinezko ibilaldiak mailaren arabera sailkatuak dira eta ibilbide bakoitzaren fitxa praktikoan kolore batez azalduak. Izan ere, FF Randonnée-ren arauak segitzen ditugu.

Biziki errea 2 oreneko ibilaldia baino laburragoa.

Familiarekin egiteko biziki egokia, bidexka zabaletan zehar.

Errea 3 oreneko ibilaldia baino laburragoa.

Familiarekin egin daitekeena. Bidexketan,

tarte zailago batzuekin.

Ertaina 4 oreneko ibilaldia baino laburragoa.

Mendizale adituei zuzendua. Leku aski zail batzuk eta desnibela handia izaten ahal dira.

Zaila 4 oreneko ibilaldia baino luzeagoa.

Mendizale aditu eta kirolaria denari zuzendua. Ibilaldia luzea edo zaila izaten da. (desnibela, parte zailak), edo biak betan.

Ibilaldiaren iraupena: zure informazioarako emana da. Ibilaldiaren luzetasuna konduan hartzen du, baita desnibelak eta izan daitezkeen zailtasunak ere.



Bide seinaletika

Ibilaldien labelak

PR® labelizaturiko ibilbideak: Label horrekin, FF Randonnée-k oinezko ibilaldiak kalitatezko ezaugarrien arabera onesten ditu aitortpena. Hautua ezaugarri tekniko eta turistikoaren arabera, baita ingurumenari loturiko ezaugarrien arabera ere egiten da. (xehetasun gehiago ukaiteko, www.ffrandonnee.fr)

Ibilbideen GPS datuak.

Ibilbide bakoitzarentzat, etapa punduen GPS datuak emanak dira.

Erreferentzia formatua hau da:

WGS 84 - UTM 30T

Balizamendua

Balizamendua segitu bide onean egoteko

Bidexken balizamendua	Herri ibilbideak eta PR®	GR®
Norabide ona		
Ezkerrera itzuli		
Eskuinera itzuli		
Norabide txarra		

GR®, GRP® eta PR® Oinezko Ibilaldietarako Frantses Federazioak pautatu dituen sormarkak dira

Zure iritzia gure bidexkei buruz - Ecovaille®

Kasu handia egiten dugu proposatzen dizkizugun ibilaldiak hautatzerakoan eta prestatzerakoan. Gure bideen egoerari buruz dituzun iritziek eta oharrek interesatzen gaituzte. Horiei esker, bideak egoera onean atxikitzen ahal ditugu. Zure oharra jakinarazteko Hego Lapurdiko Hirigunea deitzera gomitatzen zaitugu: 05 59 48 30 85.

Edo « Ecovaille » ohar fitxa bat galdegin ondoko webgunean: www.rando64.fr

Aholku baliagarriak

Eguraldia 08 92 68 02 64 edo 32 50 edo www.meteofrance.com

Europako larrialdi zenbakia 112

Biarno eta Euskal Herriko bideetan gaindi ibiltzean lurralde hori biziarazten duten izadi, gizon eta emazteekiko portaera errespetagarria izan dadin ezinbestekoa da.

Arau batzu errespetatzea inportantea da.

Izadia begiratu

- Zure hondakinen biltzeko zaku bat hartu.
- Abereak eta landareak errespetatu
- Balizatuak diren bideetan egon

Zure burua zaindu

- Mendira ez abiatu behar den materialik gabe
- Bakarrik ez joaten saiatu.
- Erreketako urik ez edan.
- Aroari kasu egin.

Aktibitateak eta gizakiak errespetatu

- Hesiak berriz hestea pentsatu.
- Suak debekatuak dira.
- Ibilbideak inguratzen dituzten etxe pribatuak errespetatu.

Kasu !

Euskal eta biarnes mendiak artzain-eremuak dira. Xakurrik gabe joaten saiatu. Edozein kasutan, loturik atxik. Milesker !